

OSTUEN ETORRERA.



KONTUA.

(NERE ADISKIDE KARMELO ECHEGARAY-KOARI).

Iñaši zegoen atarian, galtzerdiya egiñaz, bere oñen onduan erbi-zakur aundi bat etzinta zeguela.

Iñaširen arpegian azildutzentzan alako atsegiñ alai bat; farra eta noizian beñ negarra etortzen zitzaizkan, eskubetan egiten zeukan galtzerdiya eroriaz magal gañera.

Iširita zegoen alkitik maizcho alchatzen zan, inguruetara beiratubaz, guztiz larriturik, zerbaiten zai gaudenian bezela.

Bera alchatzen zan guztian, zakurra ere alchatzen zan, salto ta saunk egiñaz, bazirudien zerbait gauz on onek ere igartzen zubela.

Ontan, auzoko An̄toni irtetzen zan echetik. Mirabe egokia, begi beltz, ortz churi eta ibillera sasoi dunekoa. Emeretzi urte eskasak izango zituben.

Buruban zeraman chesto aundiya, zatar zuri-zuri batekiñ estaliya, tartietatik agertubaz, lechu, aza, egazti, mami-kaiku eta esne marmita, dana chukun chukun jarria.

Ontan datorrela topoz egiten du Iñaširekiñ esanaz diosaldurik:

—Jaungoikoak egunon diola, Andre Iñaši, ¿zér goiz ederra zabaldu duben?

—Bai, atsegiñ dago, An̄toni—eranzun zion beiratu gabe Iñašik!

—Ai beza, Andre Iñaši—zion ostera etziolako beiratu eta zerbait igartuaz—¿badaki gaur egun sentian sekulako intza zegoela?; ez det beñere ezautu orrenbesterañokorik. Aitari esan diot, eta eranzun dit ori ona dala soruak aurreratzeke, eta arbolak ostoz estaltzeke. Ostuen etorreran ori biardala esan dit gañera.

—Bai, An̄oni?—Eranzun zion alkitikan alcharik, esanaz: —Aizu, An̄oni, gaur datorkigu guri dana batian, ostua eta loria. Badakizu?— esan zion alako far batekin, ama bati bakarrik ikusten zayon far arreakiñ.

—Ez banau obeto adiazitzen, ez det jakingo zér esan nai diran, eranzun zion An̄onik arriturikan.

—Orra bada, ja!—esan zion antsi batekin Iñāšik.—Lau urte aundien buruan, gaur datorkigu gure Jošé, soldautztikan Habanatik.—Au esan eta koloriak gorri-gorritzia An̄oniri, dana bat izan zan.

—¿Bañan gaur dator Jošé?—eranzun zion guztiz pozturikan An̄onik.

—Bai, An̄oni, gaur. Eta zuk Donostiko plazatik jira egiñ orduko, emen izango da nere biotzeko seme maitia..!—Au esanik, begietatik išuriztaizkanan bi malko, legortuaz mantalaren ertzarekiñ.

An̄onik artu zuben atsegiña berri onekin, zan munduko ondasun guztiak iñoiz eragingo etzioten bezelakoa.

Gelditu ziran alkarri zér esan jakin gabe; bañan noizbait ere An̄oniri etorriztazayon itza, esanaz:

—Ongi etorria izan dedilla. Aurki arte, Andre Iñāši, beriala emen naiz.—Eta geyago esan gabe, An̄oni abiyatu zan korri ta korri, liraiñ-liraiñ plazara, bere tratuba saltzera, lenbailen etortzeko asmu.

Bidean ¿zenbat gauza ez otezituten nastutu, Jošeren etorrerakiñ! Dana ikusten zuben zero kolorekoa.

Eta ¿nola ez, baldin badira Jošé eta An̄oni alkarrentzat jayuak, ainbeste maiterik, nun egunik ez duten izan alkartaz oroitu gabekorik.

Iñāsi nola gelditu zan bakarrik, artu zuben ostera galtzerdiya eta abiyatu zan egiten, iširiaz lengo alkian bertan; bañan bere Joše maitiaren etorrerakiñ, etzuben gauza zuzenik egiten, eta alcharik berriz, alkia arturik, sarri zan echian.

Andik piska batera zetorren basotik Premiñ, Iñāširen senarra, Jošeren aita; otarre batian zekazkien baratzak ematen dituben mokaru gošuenetatik:

—Iñāsi...!—zion deika ataritik.—Aurki, aurki emenda, ari da orduba alderatzen.

—Bai, Premiñ —eranzun zion Iñāšik.—Or ibildunaiz jira batera jira bestera, eta orain dala denbora guchi igo naiz gosaria ipintzera.

—Tira bada, geran, eta ia bitarte ontan agertzendan, gure Jošé—Premiñek esan zuen sulkaldeko alki batian iširirik.

Ari ziran beren gosarichoa jaten, bañan lan asko egiñ arren goizgoizetik, etzekaten gogorik jateko, bere semea ikusteko antsian.

An̄onienetik izandu ziran makiña bat bider, etorri zan jakitera.

Guztia alaya agertzen zan. Egun aundiagorik ez det uste izan otezan eche chiki artan.

Juandan aspaldiko denboretan etzan besterik aditzen baserri artan; ogei egun falta dira, amasei, amalau, amar eta onela, gau eta egun ordu guziyak biatz muturrakiñ kontuz eramanaz.

Iñaši, asi zan egiñalak egiñ, bazkari ona ipintzen; eta ñóla ez, lau urteren buruban ez bazuten ikusi semea beren mayean!

Etzan milagro ere semea maitatzia bérak maitatzen zuten bezela.

Berák betetzen zuben eche guziya.

Berák zerabiltzkien baso-zelayak, egun-sentirako, bere aitari deskantsua emanaz. Eta, ontan, eraman zuen suertiak Habanara soldautzara. ¡Zér negarra etzan gelditu echi artan!

Gelditu ziran aita, ama, eta bi aur, oraindik koşkorrak, batek ama-bi urte eta bestiak amar. Ogei urteko gizasemia biar onetan eramatia, ez dago ikusi besterik zér izango zan.

Juantzan eguna ez dago gogora zertako ekarririk.

Aita gizarajoa ordutik asi zan makaltzen, ama berriz ez dago zer esanik, bañan alaz guziaz ere, urtiak joan eta gaurtik echian izango dute ostera beren Jošé maitia.

Gosaria bukatuta zeuden pacharan sukaldian, Premiñ eta Iñaši, kontu kontari bezela, bañan zakurrak etzioten pakerik ematen bere saunkakin; larritu ziran Premiñ eta Iñaši, alcharik zakurrak zer izango otezuben ikustera, eta, nún ikusten duten eche atera alderatzen Jošé!

—¡Jošé!! deadar egiñ zuben ama Iñasik biotzeko indar guziarekiñ.

—¡Jošé!! dio aitak segiran.

—Emen naiz, emen, emenda Jošé ¡Aita! ¡Ama!!—Batian eran-zun zuben semeak...

.

Andik iru illabetera Jošé eta auzoko An̄toni ezkondu ziran, eta gaurko egunian dira alkarren begietatik ikusten duten senar emazte fiñak.

Premiñ aitona eta Iñaši, amona, biyak gobernatzen ditu gaiñ-naneko errañak, eta bizi dira munduko errege guziak beziñ ondo, pakian eta lanian.

Eta an ta emen.... orra gure ostuen etorrera.

FRANZISKO LOPEZ.

Donostian, 1889-ko Apirillean.

